MARIA SUSANA TORREGARAY PAGOLA (1, guztira 1)
Ingurumen teknikaria
Sinaduraren data: 14/10/2026
HASH: 8eeefba192f047ea0943 0e2f758cc5a7
LEGAZPIKO UDALA

LEGAZPIZKO HIRI-AUTOBUS ZERBITZUA (“JUNETORRI”)

I. ERANSKINA. USTIAPEN-PROIEKTU TEKNIKOA

1. Sarrera

Ustiapen-proiektuak Legazpiko udalerrian bidaiarien hiri-garraio publiko erregularreko zerbitzuaren ustiapenaren baldintza teknikoak zehazten ditu (“Junetorri” zerbitzua).

2. Lineak eta geltokiak

Legazpiko “Junetorri” zerbitzua zazpi (7) ibilbidek osatzen dute, eta horien xehetasunak, kilometroen, zerbitzu-denboren eta geltokien arabera, ondorengo tauletan jasotzen dira:

Rutas	Distancia (Km)	Tiempo trayecto (min)
R-1	5,38	0:24
R-2	5,95	0:26
R-3	17,99	0:50
R-4	17,99	0:45
R-5	10,54	0:35
R-6	2,98	0:14
R-7	2,08	0:12

Baliozkotze Kod.: A53AGMRQ2QPF6MEKE7YCM66HJ
Egiaztapena: https://legazpi.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 8

PARADA JUNETORRI	R-1	R-2	R-3	R-4	R-5	R-6	R-7
Urtatza	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Urtatzako Iturria	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Landa Baserria	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Laubide	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Arantzazuko Eskola	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Muru	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
San Martin Plaza	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Olazabal	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
San Ignazio	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Juanastegi - Igogailua	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Itxaropena - Aiztonaga	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Itxaropena - Plaza	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Aizkorri	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-
Kiroldeagia	-	-	Sí	Sí	Sí	-	-
Bikuña	-	-	Sí	Sí	Sí	-	-
Zubitxo	-	-	Sí	Sí	Sí	-	-
Brinkola	-	-	Sí	Sí	-	-	-
Guruditegi	-	-	Sí	Sí	-	-	-
Brinkola	-	-	Sí	Sí	-	-	-
Telleriarte - Pastain	-	-	Sí	Sí	Sí	-	-
Motxorro - Plasnor	-	-	Sí	Sí	Sí	-	-
Olaberria	-	-	Sí	Sí	Sí	-	-
Bikuña Errota	-	-	Sí	Sí	Sí	-	-
Tren Geltokia	Sí	-	-	-	-	-	-
Saturnino Telleria	-	Sí	Sí	Sí	Sí	-	Sí
Azoka	-	Sí	Sí	Sí	Sí	-	Sí
Txorronea	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-	Sí
Osasun Zentroa	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-	Sí
Santikutz Egoitza	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-	Sí
Meazti	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-	Sí
Laubideko Errotonda	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-	Sí
Domingo Agirre Ikastetxea	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-	Sí
Urtatza	Sí	Sí	Sí	Sí	Sí	-	Sí
Km por vuelta	5,38	5,95	17,99	17,99	10,54	2,98	2,08
Tiempo estimado	0:24	0:26	0:50	0:45	0:35	0:14	0:12

Hona hemen “Junetorri” sarea grafikoki irudikatzen duen planoa:

Baliozkotze Kod.: A53AGMRQ2QPF6MEKE7YCM66HJ
Egiaztapena: https://legazpi.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 8



Baliozkotze Kod.: A53AGMRQ2QPF6MEKE7YCM66HJ
Egiaztapena: https://legazpi.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 8

3. Zerbitzu Plana

Ohiko zerbitzu plana urtero egituratzen da egun mota hauen arabera:

1. **Lanegunak (astelehenetik ostiralera): 21 irteera egunean urte osoan, abuztuan izan ezik.**

R-1	7:10	R-7	16:45
R-1	7:35	R-2	17:00
R-5	8:00	R-2	17:30
R-2	8:45	R-5	18:00
R-5	9:15	R-2	18:45
R-2	10:00	R-2	19:15
R-2	10:30	R-2	19:45
R-2	11:00	R-5	20:15
R-2	11:30	R-6	20:53
R-5	12:00		
R-2	12:45		
R-6	13:15		

2. **Abuztuko lanegunak (astelehenetik ostiralera): 6 irteera egunean.**

R-2	9:00
R-5	9:30
R-2	10:30
R-2	11:15
R-2	11:45
R-5	12:15

3. **Larunbatak, igandeak eta jaiegunak: 8 irteera egunean urte osoan, abuztuan izan ezik.**

R-2	17:00
R-2	17:30
R-5	18:00
R-2	18:45
R-2	19:15
R-2	19:45
R-5	20:15
R-6	20:53

4. **Urteko egun jakin batzuetan zerbitzu bereziak eskaintzen dira:**

Baliozkotze Kod.: A53AGMRQ2QPF6MEKE7YCM66HJ
Egiaztapena: https://legazpi.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 8

- Santikutz jaiak
- Mirandaola eguna
- Brinkola jaiak
- ….

Zerbitzu berezien zerrenda eta horien prestazio-egun zehatzak jasotzen dituen taula eransten da (2027ko egutegiaren arabera):

Eguna	Ekitaldia	Ordutegia
Maiatzak 1 (larunbata)	Santikutz jaiak	10:30 - 14:30 eta 17:30 - 21:47
Maiatzak 2 (igandea)	Santikutz jaiak	10:30 - 14:30 eta 17:30 - 21:47
Maiatzak 3 (astelehena)	Santikutz jaiak	10:30 - 14:30 eta 17:30 - 21:47
Maiatzak 9 (igandea)	Mirandaola Eguna	10:30 - 14:30
Ekainak 12 (larunbata) eta Ekainak 13 (igandea)	Hegialdeko jaiak	10:30 - 14:30 eta 17:30 - 21:47
Uztailak 17 (larunbata)	Aztiriko jaiak	17:30 - 19:00 eta 20:30 = Urtatzan
		10:30 - 12:00 - 13:15
Uztailak 18 (igandea)		11:15 - 12:30 - 14:00
		18:15 - 19:45 eta 21:15 = Aztirin
Abuztuak 27 arratsaldez	Brinkolako jaiak	17:30 - 19:00 eta 20:30 = Urtatzan
Abuztuak 28 (larunbata)		18:15 - 19:45 eta 21:15 = Brinkolan
Abuztuak 29 (igandea)		
Irailak 5 (igandea)	Artzain Eguna	10:30 - 14:30 eta 17:30 - 21:47
Irailak 11 (larunbata)	Agorreko Santikutzak	10:30 - 14:30 eta 17:30 - 21:47
Irailak 12 (igandea)		
Irailak 26 (igandea)	Aizkorrin Barrena mendi martxa	Brinkolatik irtengo da: 14.00, 15.00 eta 16.00
Azaroak 1 (astelehena)	Santu Guztien Eguna	10:30 - 14:30

Erantsitako taulan jasotzen da prestazio-egunen kopurua, eguneko tipologiaren eta 2027ko egutegiaren arabera:

Denboraldia	Egun mota	Egun kopurua
Urte osoan, abuztuan izan ezik	Lanegunak (astelehenetik ostiralera)	228
	Larunbatak, igandeak eta jaiegunak	104
Abuztua	Lanegunak (astelehenetik ostiralera))	13
	Larunbatak, igandeak eta jaiegunak	-
Bereziak		16
	Guztira	**361**

Baliozkotze Kod.: A53AGMRQ2QPF6MEKE7YCM66HJ
Egiaztapena: https://legazpi.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 8

Ohiko zerbitzu-eskaintzaz gain, Legazpiko Udalak nahi izanez gero, ezohiko zerbitzu batzuk ezarriko dira. Zerbitzu horien urteko bolumena gehienez 800 km-koa izango da.

Oro har, 2027ko egutegiari eta ezarritako ohiko zerbitzu-eskaintzari dagokienez, ustiapenaren magnitudeak erantsitako taulan zehazten dira:

Magnitudes anuales	**E4 (*)**
Kilómetros comerciales	**39.360,6**
Kilómetros en vacío	**1.808,4**
Volumen de Producción	**41.169,0**
Horas de conducción comercial	**2.615,0**
Horas de conducción vacío	**100,1**
Horas de regulación	**439,1**
Horas toma servicio	**30,1**
Horas totales de trabajo	**3.184,4**

(*) Oharra: ez dira sartzen aparteko prestazioen urteko 800 kilometroak

4. Gidariak

"Junetorri" hiri-zerbitzua emateko behar diren gidarien kopuruaren kalkulua honako kontrol-aldagai hauek kontuan hartuta egiten da:

- Indarrean[1] dagoen probintziako hitzarmenean ezarritako orduak: 1.777 ordu urtean.
- Urteko lanordu guztiak, honako hauek barne: zerbitzu komertzialaren orduak, hutsik[2] egindako joan-etorriak, geltokietako erregulazioa, eta zerbitzua hartzeko eta uzteko denborak.
- Prestakuntza: 40 ordu urtean langile bakoitzeko.
- Eraginkortasunik ezaren tasa: % 7,0 (lan-absentismoa barne).

Ondorioz, behar den gidari kopuru teorikoa honako taulan zehazten da:

Zerbitzu komertzialeko gidatze-orduak	**2.615,0**
Urteko lanorduak guztira	**3.184,4**
Prestakuntza	40
Probintziako hitzarmeneko orduak (2026)	1.777
Langile bakoitzeko urteko orduak (prestakuntza barne)	1.737
Eraginkortasunik ezaren tasa	7,0%
Urteko lanordu eraginkorrak	1.615
Gidari kopuru teorikoa	**1,97**

Beraz, "Junetorri" zerbitzua emateko, enpresa kontratistak gutxienez **bi (2) gidari** esleitu beharko dizkio zerbitzuari, proiektu honetako baldintzen arabera. Hala ere, zerbitzuak, une oro behar adina

[1] Gipuzkoako Errepidean Zeharreko Bidaiarien Garraioaren Lan Hitzarmena (2022-2025).

[2] Hutsik egindako ibilbideen kalkulua prestazio-eremu funtzionalean kokatutako base operatibo bat aintzat hartuta egin da.

Baliozkotze Kod.: A53AGMRQ2QPF6MEKE7YCM66HJ
Egiaztapena: https://legazpi.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 8

langile izan beharko ditu, zerbitzua behar bezalako segurtasun- eta eraginkortasun-balditzetan ematea bermatzeko.

Gutxieneko zuzkidura hori estaltzeko, eta LGALren 73.2 h) eta 75.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera, SPKLren 130. artikuluarekin lotuta, esleipendunak enplegatzaile gisa subrogatu beharko du zerbitzua aurrez ematen zuen enpresaren lan-harremanetan.

Gidariak, kontratazio-baldintzak eta neurri horrek dakartzan lan-kostuak plegu administratiboetan zehazten dira:

Aplikatu beharreko hitzarmena Gipuzkoako Errepide bidezko Bidaiarien Garraioaren Hitzarmen Kolektiboa da, plegu hauek argitaratzen diren unean indarrean dagoena; hain zuzen ere, GAOren 120/2024 zenbakian, 2024ko ekainaren 21ean argitaratua.

5. Baliabide materialak

Zerbitzua behar bezala emateko, gutxienez, honako baliabide material hauek beharko dira:

- **Ibilgailuak**: I motako bi (2) ibilgailu (hiri-ibilgailuak): ibilgailu titular bat (1) eta erreserbako ibilgailu bat (1).

- **Ibilgailu titularrak** gutxienez 30 plazako edukiera izan beharko du, eta horietatik gutxienez 18 eserlekuak izango dira, mugikortasun urriko pertsonen eta gidariaren plazak kontuan hartu gabe.

  Gainera
  - Ibilgailuek (titularrak zein erreserbakoak) gehienez honako neurri fisiko hauek izango dituzte: 8,5 m-ko luzera eta 2,5 m-ko zabalera.
  - Bi ibilgailuek gurpil-aulkian doazen erabiltzaileentzako egokitutako espazioa izan beharko dute (MUPga), indarrean dagoen irisgarritasun-araudiak ezarritako baldintzen arabera.
  - Bai ibilgailu titularrak bai erreserbakoak arrapala izan beharko dute, mugikortasun urriko pertsonei sartzen uzteko. Ibilgailu titularraren arrapalaren eragintza-sistemak automatikoa izan beharko du.
  - Zerbitzuaren ibilgailu titularra **ibilgailu berria** izango da, motorizazio elektrikokoa (BEV) eta ZERO[3] kategoriakoa.
  - Erreserbako ibilgailua, hala badagokio, bigarren eskuko ibilgailu termikoa izan daiteke, diesel motorizaziokoa, gutxienez EURO VI emisio-kategoriakoa. Ibilgailu horrek <10 urteko antzinatasuna izan beharko du une oro, lehen matrikulaziotik aurrera zenbatuta.

    BTPak berariaz ezartzen duen bezala, gehienez 12 hilabeteko aldi iragankorra ezartzen da ibilgailu elektriko berria (BEV) zerbitzuan jarri arte. Denbora horretan, enpresa kontratistak <10 urteko antzinatasuna duen bigarren eskuko ibilgailu bat esleitu ahal izango dio “Junetorri” zerbitzuari, betiere aplikatu beharreko araudiak eta lehiaketaren plegu teknikak zehaztutako irisgarritasun-, erosotasun- eta segurtasun-baldintzak errespetatzen badira.

[3] Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen arabera.

Baliozkotze Kod.: A53AGMRQ2QPF6MEKE7YCM66HJ
Egiaztapena: https://legazpi.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 8

- **Ibilgailuko sistema teknologikoak:** ULS eta moneta ekipoak eta beste sistema osagarri batzuk instalatzea, plegu teknikoaren eta GGLAren eskakizunen arabera, eragiketaren kontrolerako eta Gipuzkoako tarifa-sistema bakarraren (MUGI sistema) funtzionalitateen aplikazio eraginkorrerako. II. eranskina. “ITS sistemak”.

- **Instalazio finkoak**: preskripzio teknikoen pleguan ezarritakoaren arabera eta prestazioaren eremu funtzionalean kokatuta. Instalazioek “Junetorri” zerbitzuaren eguneroko jarduera normalizatua bermatzeko ekipatuta egon beharko dute

Baliozkotze Kod.: A53AGMRQ2QPF6MEKE7YCM66HJ
Egiaztapena: https://legazpi.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 8